

115. zk.
2002ko uztaila



Gasteizko Eusko Ikaskuntza

BIDAIATZEKO PREST?

Frankeo itundua 48/27

BAGARE EUSKAL TOKIA: S.O.S!!!

Fundación Sancho el Sabio Fundación

BAGARE EUSKAL TOKIA DESAGERTZEKO ARRISKUAN!

- Bagare Euskal Tokia, lapurketa eta iruzur batengatik, desagertzeko arriskuan dago. Hori ekiditzeko KANPAINA bat jarri dute abian 60.000.- euro lortzeko helburuarekin.

- Besteak beste, 600 euroko mailegua ematea proposatzen du (dirua epe zehatz baten buruan itzultzeko konpromisoaz).



BAGAREk aurrera jarraitzea ezinbestekoa da. Bagare desagertu ezkerro proiektu batzuk ahulduko dira: Kantu Txapelketa, Euskaltzaleon Elkargunea, Euskarazko kultur programazioa, Udaletxe eta Foru Aldundiaren aurrean egiten dugun lana...

BAGAREK leku irekia izaten jarraitu behar du,

BAGARE EUSKAL TOKIA taberna bat baino gehiago da. 1988. urtean sortu zen eta sorreratik KULTUR ARLOAN milaka kontu egin ditugu: hitzaldiak, kontzertuak, liburu aurkezpenak, bertso saioak, Euskal Herria ezagutzeko ateraldiak, Oporrak euskaraz programazioa, mendi ibilbideak, diapositiba emanaldiak, Zinea Euskaraz, ipuin kontalariak... Bagare topalekua bihurtuz. Euskalgintza koordinatzeko lan egin dugu (Arabako Euskaltzaleon Elkargunearen, Kontseiluan EKB, Euskal Kantuzaleen Elkartean...) Udala eta Foru Aldundiaren aurrean euskaldunon bozeramaile lanak egin ditugu askotan, beste elkarteekin batera.

BAGAREk aurrera jarraitzea merezi du. Proiektu propio bezala oraindik asko eman dezakeelako eta euskalgintzak behar duelako. Horregatik

hau da taberna izatea garrantzitsua da, topalekua izan dadin. Euskalgintzak leku propioa izaten jarraitu behar du, ezinbestekoa da eta ezin da propioak ez diren beste lokalekin egin. Horregatik erabaki dugu Bagare aurrera jarraitu behar duela.

Orain arrisku larrian dago gure proiektua; lapurketa batengatik (kontratistak diru mordoarekin ihes egin du) egiten ari ginen obretan desagertzeko arriskuan gaude. Eta egoera honetatik ateratzeko, zure laguntza, euskaldun eta euskaltzale guztiona, behar dugu. Lagundu ezazu Bagare berreraikitzen!! Horretarako BONO LAGUNTZAK erosi, sartu dirua gure kontuetan ala deitu gurera zer egiteko prest zauden esateko.

Bagareren kontu korronteak:

VITAL KUTXA 2097 0151 31 0008258659

EUSKADIKO KUTXA 3035 0080 93 0800045210

**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
945261956 (Jesus) - 649250559 (Fernando)**

MILA ESKER!

115 zk. 2002ko uztaila

2. ORR.:
BAGARE-K GUZION KOLABORAZIOA BEHARI!

4-6. ORR.:
ZIZKA-MIZKAK
HILEKO GAIA: GASTEIZKO XXVI. JAZZALDIA

7-8. ORR.:
GEUgune. KULTUR ERROTARI SO!

9. ORR.:
IRUDIRIK IRUDI: ARABA EUSKARAZ-02

10-11. ORR.:
LITERATURA

12-14. ORR.:
BIDAIK II. EKUADOR, Amazonia oihana

15-17. ORR.:
KUBAREKIKO ELKARTASUNEAN

18-19. ORR.:
GAZTE LITERATURA LEHIAKETA

20-22. ORR.:
OLETA: ATXINETA BASERRIaren apustua

24-25. ORR.:
RUBEN SANCHEZ bertsolariarekin mintzo

26-27. ORR.:
EHARIALDEA eskubaloi taldea

28-29. ORR.:
GASTEIZ CUP-02, futbola baino gehiago

30-31. ORR.:
BIDAI ERAKUSKETA: IBILI MUNDUAN!

32-33. ORR.:
Zeuk aukeratu!

34. ORR.:
TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)

35. ORR.:
GALESera BAGAREekin!

36. ORR.:
ARABAKO EUSKAL HOTSAK eta
ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA LIBURUAK
JADA KALEAN!





GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxes: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariko batzordea:** Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa; Dalvez. **Marrakziak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Ernesto Murillo 'Simonides'. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin eta Gorka Glz. de Zarate. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankoe Inundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako erantzukizunik.



4. ORR.



12-14. ORR.



20-22. ORR.



26-27. ORR.

GASTEIZKO XXVI. JAZZALDIA

Hileko gaia

ASTEBETEKO LORALDIA GASTEIZEN

Gorka Glz. de Zarate

Hona uztaila; udara iritsi zaigu. Berarekin, beroa, jaiak, oporrak. Horrez gain, musika ezin hobe zuzenean gozatzeko aukera izango dugu uztailaren 14tik hasita eta 20rarte, Gasteizko Jazzaldiari esker.

Urtean zehar musika-basamortuaren eskasiak jasan behar izan ditugunean, aste horretan pilatuko zaizkigu egun entzun daitezkeen kontzertu hoberenetarikoa, ez jazz estiloaren ingurukoak soilik, baita kalitatezkoak diren beste estilokoak ere, hots, blues, rithm & blues, rock, etab. Izan ere, gure jazzaldia Europako onenetako bilakatu zaigu, urratsez urrats.

Van Morrison, Jazzaldiaren izarra

Dagoeneko saldu dira Van Morrison-en kontzerturako ziren ia sarrera guztiak. Bakanen batzuk izango dira kontzertu horren egun berean leihatilan ausartzen diren horientzat. Hauxe izango da jazzaldiaren izarra. Ohi denez, antolatzaileak beti saiatzen dira izar entzutetsuren bat ekartzen jazzaldiari ospea emateko, horri esker hasiera batean jazzaren eremuetara inoiz hurbilduko ez ziren lagun horiek bereganatzeko asmoarekin.

Eta hala izango da, Van Morrison ikusteagatik uztailaren 17an baino ez Mendizorrotzeko polikiroldegira hurbiltzen diren horiek Charles Mingus-en izpirituaren aztarnak aurkituko dituzte bertan, berarekin batera musikari batzuek osatutako Big Band-ean egitaratuak. Eta agian 'Belfasteko Lehoiaren' rock eta rithm & blues-ean interesa dutenek jazzaren ukitu magikoa sentituko dute.



Argazkiak: Edoña Sanz

Baina berdin izan beharko litzaiguke jazz-zaleoi, horri esker jazzaldiaren gainontzeko egunetan barna izugarrizko musikariak ikusteko aukera baldin badugu.

Mendizorrotzeko besteak

Mendizorrotzeko kiroldegian izango

diren kontzertuetatik batzuk azpimarratzearren, honako bi hauek nagusituko nituzke: uztailaren 16an, asteartea, Jan Garbarek saxojoleak lehen zatian eta Don Byron klarinetejoleak bigarrenean joko dutena; eta jazzaldia biribiltzeko, Silje Nergaard abeslari norvegiarrak eta Herbie Hancock pianojoleak, batetik, eta Michael Brecker saxojoleak eta Roy Hargrove tronpetajoleak, bestetik,

uztailaren 20an, larunbata, emango dutena, hain zuzen ere.

Hala ere, Mendizorrotzean izango duguna ez da mugatuko maisu amerikarren zuzentasun estilistikora edota norvergiar musikajoleen azalezko hoztasunera bakarrik. Horiekin batera, uztailaren 18an blues eta benetako rithm & blues-aren indar eutsiezina izango dugu kontzertu aipagarri batean. Egun horretako lehen zatian Marcia Bell abeslari estatubatuar arituko zaigu eta bigarrenean, Buddy Guy blues estiloko gitarrajole indartsua, zeinek blues musikaren bi estilo nagusiak, Chicagoko iparraldekoa eta New Orleanseko hegoaldekoa, biltzen omen baititu beren gitara elektrikoaren harietan.



zailak askotan, baina interesgarriak beti. Eta ez ahaztu, 20an izango dugula Euskal Herriko ordezkari bakarraren kontzertua, Gorka Benitez bilbotarrarena, hain zuzen ere.

Gutxiengoek ere badituzte eskubideak

Beste aldetik, ezin dut aipatu gabe utzi jazzaldi honek duen atal onenatarikoa: XXI. Mendeko jazzarena, alegia. Principal antzokian uztailaren 16tik eta 20arte bilduko dira Mendizorrotzeko jendetza bereganatzeko gauza ez diren musikari horien kontzertuak. Eurek bakarrik jazzaldi propio bat osatzen dute, Mendizorrotzean egiten dena, alde askotan, gainditzen duena. Musika diferenteak, ausartak, entzuteko

Amaitzeko, ez ahantzi jazzaldi honetan musika ez dela soilki mugatzen musika-aretoen hormetara, izan ere, taberna eta hoteletan jotzen diren saioetan badago zer entzunik eta ez dira ez ahuntzaren gauerdiko eztula. Sarri izan dira kontzertu ofizialetan aritu diren musikarien espresio libreko inguruneak eta hori ikusteko aukera benetan kontuan izan beharko genuke.

araba bixotzian



ikusi-makusi

ZORIONAK!!!



Euskal Aktoreen IX. Gala, lehendabiziz Gasteizen. Jokulari sariak (aktoreek beraiek aukeratuta) banatu zituzten pasa den urteko zinema, antzerki eta telebistako aktore onenen artean.
Zorionak Araba!
Jose Ruiz de Azua ('Besarkada saria')
Txubio Fernandez de Jauregi (Antzerki sailean nominatua)



30 ordu pilotan jolasten geratu gabe, **Ikasbidea Ikastolako I. Pilota Maratoia**: ekainaren 7an hasi eta ekainaren 8ko eguerdia arte ospatu zen, Ikastolako urteroko Jaiarekin batera.

- Helburuetariko batzuk, besteak beste: "euskara kirolean ere erabiltzea, gurea den pilota kirolaren erabilera eta ezagutzea zabaltzea, aisialdian bai lagunartean bai familiarartean era ludikoan jolastea, eta azkenik, daukagun frontoia konpontzeko dirulaguntzak jasotzea".


- Honakoa, programazioa: ikastetxeko zenbait ikaslerekin partidak, putxeak, kinielak; Arabako Ikastetxe-arteko pilota txapelketan parte hartzen ari diren gure ikasle guztien erakustaldia; gurasoen arteko partidak; pilotagile baten erakusketa; Ikaspilotak antolatutako Pilota tailerra; Euskadiko selekzioko nesken pala taldeko partaideen arteko partida; eta jaialdia amaitzeko, profesionalen arteko partida.

Ikasbidea ikastolako Iturribero Guraso Elkarteak
Ikasbidea ikastolako Zuzendaritza Taldeak
Ikasbideako Iturribero pilota taldeak

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



Udako kantari nekaezinak: labatxirria (*Acheta domestica*), kilkerra (*Gryllus campestris*), luhartzza (*Gryllotalpa gryllotalpa*), oti berdea (*Tettigonia viridissima*), matxinsaltoa (*Chorthippus biguttulus*) eta txitxarra (*Cicadetta montana*)

Zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUS-KARAZ EGITEKO AUKERA!!!** (Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

* Geu Azoka-ko iragarkiak alez ale berritu behar dira, hots, ale batean zerbait iragarri eta hurrengo alean ere argitaratzea nahiko bazenute, deitu edo posta elektronikoaz jakinarazi.

SALMENTAK-ALOKAIRUAK

• Garaje plaza bat salgai. San Cristobal auzoan. 945137195-606658122

• Kotxe bat salgai: Seat Ibiza, VI-L. Salneurria: 600.- euro. 615788283 (Karlos)

• Pisu bat salgai Antiguu auzoan, Donostian, hondartzatik gertu. 943799202 (arratsaldeaz)-652751947

• Apartamentua errentan gunen naturista batean: Vera-Almeria. Hondartza naturista. Hornitua: garbigailua, mikrouhin-labea, telebista, terraza eta igerilekua. 657739425

UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA

• Neska bat behar da irailetik aurrera goizez 4 urteko umea ikastolara eraman eta ekartzeko, baita etxeko lanetarako ere. 945143686

• Tabernari euskalduna behar da. Eskaintzen dugu: Gizarte segurantzaren alta, ostalaritzako konbenioa (urtean 15 paga), diru baldintza onak. Deitu 94201918 edo 946816558

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldeaz, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ • GAUEZ • ASTEBURUAK

ILAZKI. ILAZKI. Ordutegi guztiak, 945172037

**GEUREKIN MENDIRA
eta
KULTUR ERROTA:
udazkena arte!**

• **GEU elkartean** monitore euskaldunen lan-poltsa osatzen ari gara irailetik aurrera proposamen berrietan lan egiteko. Bidali curriculum txiki bat postaz edo e-postaz.

Arduraduna: Josune

**GEU elkartearen posta elektronikoa: geuelkarte@grn.es
Gogoratu aldizkariarena: geugaste@grn.es**

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
- Helduentzat • Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat
Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"
K U L K I
www.kulki.org



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

KULTUR ERROTA: KULTURA GEU ELKARTEAREN ESKUTIK

Kulturaren gorpila hirugarrenez ibili da biraka Gasteiztik. Gure hiriraino ekarri nahi izan ditugu Euskal Herriko txoko guztietako arte isladak euskara antzerkiz, kantuz, kontuz, musikaz jantzi dugularik. Gauzak horrela, iragan berri den ikasturte honetan, urritik hasita ekaineraino, honako kultur gileen lanez jabetu gara: Markos Untzeta bere folk-rock taldearekin, Uztail Oparoen Ostean-eko kantuak eta errezitalak, Jon Maia bertsolaria kantari Karidadeko Bentan, Gasteizko antzerki eta dantza garaikideko neska-mutilen Sazerdotizak eta Kriston gorputza eta Tetralorstxer saioa, Kirmen Uriberen Bitartean heldu eskutik poesia errezitaldia, Kike Amunarriz eta Asisko Urmenetaren Euskaraz dibertitzeko manerak, Matxinen antzerkia, "Ondo esan beharko" Ramon Agirreren umore saioa, eta azkenik, Amaraun jazz taldearen doinu pertsonalak.

Guztira bederatzi saio izan dira, zeinen bidez hilero Geu Elkartek Parral Tabernan euskaldun nahiz euskaltzale guztioi denetiko kultur adierazpenak eta euskara elkarlanean ikusteko aukera paregabea eskaini dien. Hortaz, kultur errota dagoeneko gune sendotua izanik aurrean markak hautsi ditugu, hainbat saiotan 300 bat lagun bildu baititugu. Zorionak guztioi eta kulturaren errota urritik aurrera zain duzuela ez ezazue ahaztu: denok gonbidatuta zaudete!



GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEA ARABA EUSKARAZ-EKIN BAT

Eta kulturaz ari garela harira dator urtero Arabako ikastolek antolatzen duten euskararen jaia. Aurtengo antolakuntza Gasteizko Armentia Ikastolari egokitu zaiola, Geu Elkartek eta Aldizkariak gure herrialdean euskara sustatzeko egitasmoan parte hartzeko aukera izan dute, antolakuntzarekin batera ikasturte honetan (azarotik eta Araba Euskaraz gauzatu zen egun bera arte) txikienetzat egitarau zabala eskainiz arabar

hiriburuan nahiz herrietan zehar. Saioren artean honakoak: hasteko, Itzal Antzerkia-ren emanaldia, ondoren Txan Magoa, Taupada Antzerkiaren "Mari Sorgin" antzezlan gero, eta Azika Txotxongilo taldearen kultur ekintza azkenik; guztiak Armentia Ikastolan. Oionera ere heldu da Txan Magoaren magia eta Gopegiraino, Morgan Pirata eta Karidadeko Benta. Bestetik, Mendizorrotzean Oskorrik eta Kukubiltxok eginiko saioan, baita Mikel Urdangarinek Principal antzokian Araba Euskaraz-eko kanta aurkezteko emandako kontzertuan ere, Geu-ren laguntza eskertu zuen antolakuntzak. Gure aldetik, eskertzea Armentia Ikastolari Araba Euskaraz-en esku hartzeko aukera eman izana, baita estimatu ere eurekin lan egitea.

Josune Velez de Mendizabal • Geu elkarteko koordinatzailea eta Geu aldizkariako kidea

modan dago
eguzkia...

Eguraldi onarekin,
argia eta
sentsualitatea
nagusitzen dira,
markak eramaten
dira.



www.multiópticas.com
ORDAINDU EZAZU 3 HILABETETAN,
ERREKARGURIK GABE



VOGUE

Silhouette

Max Mara

Chloé

Ray-Ban

KILLER LOOP

D&G

MOSCHINO

modan daude...

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Arabian pausoz pauso euskara helburu duen etorkizuna landuz





ELKARLANEAN

**ELKARLANEAN
ARGITALETXEAREN ESKUTIK**

KEA UR GAINEAN

Bitto neska kementsua da, ezpata eta azti-keriako istorioak maite ditu eta aikidoa praktikatzen du. Baina bere zaletasunik handiena heavy metal musika da. Bai, Bittori rock gogorrena gustatzen zaio: Deep Purple, AC/DC, Iron Maiden, Metallica, Marilyn Manson, Su ta Gar... eta horrek arazo batzuk ekarriko dizkio, eta baita ustekabe galantak ere. Bittorekin batera beste pertsonaia batzuk ezagutuko ditugu: Borja bere aita, Elena bere ama, Jon bere anaia technoa eta Maddi bere ahizpa txikia, Ander bere lagun mina, Amaia Anderren ama, Gogorr musika-taldea... Guztiak arituko dira Bittoren inguruan bilbatuko den istorio berezi honetan zehar.

Iban Zaldúa 1966an Donostian jaio zen. Gaur egun Gasteizen bizi da. Historia irakaslea da eta idazlea. Hauxe da haurrentzat argitaratzen duen lehen liburua.

IDAZLEA: IBAN ZALDUA
MARRAZKILARIA:
ASISKO URMENTA
BILDUMA: XAGUXAR 118
ORRIAK: 80
SALNEURRIA: 5,90 EURO.
DATA: 2002KO EKAINA



**EKAINEKO ELKARLANEAN
LEHIAKETAREN IRABAZLEA:
MARINA LANDER GAMBRA**

ZORIONAK!

Zuretzat 'Arreba txiki bat dut, eta zer?' liburua

GALDERA:
Zer esan nahi du...
"A ZER PATATA DAUKAZUN
GALTZERDIAN!"
esamoldeak?


ERANTZUNA:
"A zer zuloa daukazun
galtzerdian!"

Udazkena arte!

**JEAN FRANÇOIS SAURÉ
ARGITARATZAILEAREN ESKUTIK:**

KAMELIAKO GIZONAK

Veys&Barral • Komikia
(Hau bildumaren 1. liburua da.
Maiatzeko alean 2.a aurkeztu genizuen)
Itzultzailea: Bego Montorio



Gosaltzeko irtendakoan, Londresko bikote ospetsua: Sherlock Holmes eta doktor Watson, lehendabizi txinatar beldur-garrien banda baten atzaparretan eroriko da eta Tamil-en mendean gero.

Atzera etxera etorrita, bi detektibeek Lipton jaunaren bisita izango dute. Gizon horrek Zeilan-era itzuli behar du bere osabaren plantazioak oinordetzan hartzeko. Lipton, Holmes eta Watson-ek zelataz betetako bidea egin beharko dute Zeilan-era joateko, zeren tearen salerosketa kontrolatzen duten merkatarik bakarrak, Twinings jaunak, kostatuta atxiki nahi baitu bere esku merkatuaren monopolioa.



GEU ALDIZKARIA eta GEU ELKARTEAREN eskutik: **ARABAKO EUSKAL HOTSAK** **ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA**

- Egileak: Jabi Otsoa de Alda eta Estibalitz Breñas Glz. de Zarate
- 2 liburu dira: bat EUSKARAZ, bestea GAZTELERAZ
- 256 orrialde
- Salneurria: 19,8 € (liburudendan) / PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta BAZKIDEENTZAT (bulegora etorrira): 17,5 €
- Honako liburudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen). Gasteiztik kanpo: liburudenda nagusienetan
- Data: 2002ko ekaina

Liburu hau 2001eko otsailean Gasteizko Montehermoso Kulturunean aurkeztu izenburu bereko erakusketan oinarrituta dago, zeinak gaur arte Arabako 20 herri ibili eta egun bere horretan jarraitzen duen.

Nagusiki honakoa da liburuan aurkezturikoa: batetik, historian barrena Araban izandako euskararen lekukotzen bilketa; euskarazko idatziak utzi dituzten egile arabarrak; eta azkenik, gure lurraldearen egoera linguistiko-historikoaren inguruko hausnarketak. Edukietan aberats eta bisuala oso, dokumentu original ugari, argazki eta mapak irudiztatua, era zehatzaz eta aldi berean atsegingarriaz gure historiaren funtsezko alde hau ezagutzera emateko asmoz.

Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean egiaztatu Araba, euskararen garapenetik at egotetik urrun, aitzindari ere izan dela zenbait gaitan: 1. euskara hiztegia, euskaraz gordetzen den dotrinarik zaharrena, 1. antezelana euskaraz, euskararen akademien aldeko 1. eskaeretakoak, ustez 1. euskal almanaka dena, Kixote-ren euskarazko 1. liburuak, eta euskaraz idatzitako 1. komikia...

Kronologikoki liburuak gure aroko lehen mendeetatik 'gaur egun' artean kokatuta dago, baina XX. mendea eta egungoaren gainean aipu txiki batzuk baino ez ditugu sartu, tarte honetan edukia zabal samarra baita, eta egokiagoa eta osatuagoa litzateke garai hau monografiko gisa aurkeztea. Hortaz, hemendik gaiari heltzera animatzen zaituztegu!



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MERKURIO-KADMIANOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

EKUADOR:

Argazkiak: Bidaiariak

Bidaia ekologikoa

GEUK hitza betetzen duela ikus dezazuen, hemen duzue uda honetan bidaiatzeko bigarren proposamen interesgarria.

Oraingoan Ekuadorrera eramango zaituztegu, Amazonia oihanetik barrena. Turismo "ekologikoa" egitea da gure eskaintza, bertakoekin bizi eta bertakoekin kolaboratzeko asmoz. Duela hilabete arte han egondako gazte batzuen esperientzia duzue ondorengoa.

Edurne Begiristain

Euskal Herriko bederatzi ikasle Ekuadorren bizi izandako hiru hilabeteko esperientzian oinarrituta txango polita eskainiko dizuegu. Magisteritzako ikasle hauek, Eki-Haizea gobernuz kanpoko erakundearen laguntzari esker, Amazoniako Pastaza herrialdean (Ekuador) egon ziren praktikak egiten. Bertako komunitateetako kideekin bizitzeko parada izan zuten, baita hango haurrekin irakasle lanak egiteko ere.

Hango paraje eta jendearekin zeharo maiteminduta bueltatu dira gure lagunak, eta GEUko irakurle zaretenoi bertara bidaiatzeko proposamena luzatzen dizuete.

Harrera berezia

Bilboko aireportutik aurtengo otsailaren 4an irten zen ikasle taldea. Londresen eta Miamin geldialdiak egin ostean, Quitora heldu ziren, Ekuadorreko hiriburura. Bertan lau egun igaro zituzten eta harrিতa geratu ziren hiriaren handitasuna (45 km-ko luzerakoa) eta desberdintasun ekonomiko itzelak ikusterakoan. Alde Zaharraren "edertasuna" izan zen gehien erakarri zituen, baina bertako txirotasuna ere ez dute ahazten. Arriskutsua da, gainera, arratsaldeko seietatik aitzina kalera ateratzea, lapurretak ohikoak baitira.

Quitoko handitasunetik, beste handitasun batera jauzi egin zuten egun gutxitan: Amazoniara, hain justu. Oihanean murgildu baino lehen, Pastazako hiriburu Puyora joan ziren eta bertako "auzoa" den Il-Jinkiran ezarri zuten euren "egoitza". Quitotik Puyorako bidea 6 orduz egiten da autobusez. Hara helterakoan, bertakoek harrera berezia egin zieten. Soineko urdin eta gorriez jantzitako emakumeek ohiko dantzekin agurtu zituzten eta "txitxa" eskaini zieten. "Txitxa" bertako edari tipikoa da; emakumeek yuka izeneko fruitua eta listua nahastuz egiten dute, hartzitzen uzten dutelarik graduak hartu artean.

Harreraren ostean, bikoteak egin zituzten, Amazonian barna barreiatutako komunitateetan banatzeko. Modu horretan, komunitate bakoitzean bikote bakoitzak 15 egun eman zituen.

Kutsu bereziko herrixkak

Komunitate batetik besterako aldea nabarmena dela gogoratzen dute gazteek. Errepidetik gertuen daudenek gaztelera hobeto menperatzen dute eta baliabide gehiago dituzte barrurago daudenek baino. Hala ere, beraie-



kin igarotako denbora positiboa izan zen; batzuekin zein besteekin.

Goizez klaseak ematen zizkieten hurrei. Eguerdian, eskolan bazkaldu, eta arratsaldean dibertitzeko tenorea hartzen zuten. Bereziki oroitzen dute elikaduraren kontua. Egunero gauza bera jaten dela diote: platanoa eta yuka. Gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko gauza bera. Haragia eta arraina ere jaten dute: tximinoa, dordokak, chancho-ak (urdeak)..., baina ez da arruntena.

Ohitura bitxiak dituztela ere gogoratzen dute, horieta-

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN

Artisan
Okindegia eta
Goxotegia



Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ko bat guztiz gain: Txaman izenez ezagutzen den sorginari errespetu handia diote bertakoek. Txamana bertako sendagilea da, magia beltza egiten du eta gure lagunek diotenez, "errespetua bainoago, beldurra diote".

Bestelako ohiturak ere badituztela aipatzen dute. Igandeetan komunitate guztietako gizonak futbol partidak jokatzen dituzte euren artean. Horretarako oihanetik zehar hiru ordu oinez ibiltzen dira beste komunitatekoekin elkartu eta futbolean aritzeko. Gizonezkoek hori egiten dute, baina emakumeek? Bada, emakumeek eguneko zati handiena etxea eta haurrak zaintzen igarotzen dute. Gizonezkoen eta emakumezkoen sexu-harremanak ere zeharo diferenteak dira. Emakumeak ez bezala, gizonak poligamoak dira eta emakume desberdinengandik seme-alaba ugari izan ditzakete.



Amazonia salbatzeko: turismo ekologikoa

Gaur proposatu dizuegun bidaia egitera animatzen bazarete gutxienez 20 egun behar direla dioskute gure lagunek. Halaber, argi utzi digute bertara joateko modurik egokiena eko-turismoa egitea dela. Eko-turismoa edo turismo selektiboa-ren bitartez, Ekuadorrera joan eta bertakoekin kolaboratzeko aukera dago. Talde txikiak egiten dira eta komunitateetako kideekin bizitzeko parada dago. Garrantzitsua da horrelako bidaia motak egitea, izan ere, Amazonia arrisku larrian baitago petrolio eta zur-enpresen erruz. Eko-turismoaren bidez bertakoei diruz laguntzen zaie eta ingurumena errespetatzen da. Opor solidarioak igaro nahi badituzue, beraz, hauxe duzue aukera paregabea.

GIDA PRAKTIKOA

TXERTOAK:

Sukar horia, Hepatitis A eta B, Tetano eta Tifus gaixotasunen kontrako txertoak hilabete lehenago jarri behar dira. Malariaren kontrako pilulak ere hartu behar dira.

MOTXILAN ZER?

Oinarrizko materiala eraman behar da: lozakua, mendiko botak eta eltxo-sarea. Ez ahaztu belaunerainoko botak eramaten (lokatx asko dagoelako eta sugeek koska egiten dutelako). Arropa: elastikoak, beso luzeko kamisetak...; oro har, arropa zaharra.

DOKUMENTAZIOA:

Pasaportea eta txertoen fitxa.

BIDAIA:

Hegazkina: Bilbo-Londres/ Londres-Miami/ Miami-Quito. Merkeena da. Gutxi gorabehera 703,18 (117.000 pta) balio du hegazkinak (joan-etorria).

TXANPONA:

Dolarra. Duela bi urtetik hona dolarra erabiltzen da. Lehen sukrea zen txanpon ofiziala.

HIZKUNTZA:

Shuarra eta gaztelera

EKO-TURISMOA:

Informazioa jasotzeko, Eki-Haizea Gobernu Kanpoko Erakundera jo. Abetxukoko Ekimen Etxea-01013-Gasteiz. Tlf: 945285110

EKUADOR

- Biztanleak: ekuadortarrak
- 10.9 milioi biztanle
- Azalera: 272.045 km²
- Hiriburua: Quito (quitoarrak); 1.1 milioi biztanle
- Hiri nagusia: Guayaquil (1.5 milioi biztanle)
- Hizkuntzak: gaztelania (ofiziala), ketxua (milioi 1), jivaro, kofan, shuar eta beste zenbait hizkuntza indiar.
- Giza-taldeak: indiarrak (% 40), mestizoak (% 40), zuriak (% 15), beltzak (% 5)

(Estilo liburu. Euskaldunon egunkaria)

EUSKADI-CUBA elkarteak: “Kubak lagun asko ditu Euskal Herrian”

Leire Lopez de Aberasturi

Argazkiak: Edorta Sanz eta Euskadi-Kuba



Kubaren egoera soziopolitikoak elkartasuna piztu du beti Euskal Herrian eta munduan. Urte osoan zehar Kubarekiko elkartasun kanpainak egiten badira ere, udan gehiago nabaritzen da Karibeko uhartearekin dagoen harremana, hara joaten diren brigadei esker batez ere, talde internazionalistek ohiko helburua baitute Kuba, bertakoekin kolaboratzeko eta, batik bat, haiengandik ikasteko.

Euskadi-Cuba elkarteak 13 urte bete ditu jadanik Euskal Herriatik Kubaren alde lan egiten, udan brigadak bidaltzen eta urtean zehar proiektuak prestatu eta informazio kanpainak burutzen. Brigadetan parte hartzea da Gasteizen duela sei urte lan egiten duen elkartearen alderik erakargarriena; 2002ko uztaila eta iraila bitartean mundu mailako hiru brigadatan esku hartuko du, eta bakoitzean bost bat euskaldun joango dira.

Caimito, Guantanamo eta Cienfuegos herrietan lan egingo dute honezkero hegazkina hartzear edo jada bertan egongo diren brigadistek. Caimiton, Kuban horren ugariak diren fruita landetan egin beharreko lanak gauzatuko dituzte langile internazionalistek; Guantanamon eta Cienfuegos, berriz, gazteentzat eta gazteekin arituko dira: batetik, kanpamentu bat

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETÉ"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

* Oilasko erreak
* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

eraikitzen, eta bestetik, bertako eskola batean kolaboratzen.

Brigaden datu zehatzak

- Uztaila-abuztua:
- Erdibasamortua den Imias-Guantanamo aldeko umeentzako kanpamenduaren eraikuntzan laguntzea. Antolatzaileak: Cubasolar (energi-iturri sostengarrien garapenerako Kubatar GKEa) eta Sodepaz.
- Irailean:
- B. Masó-Granma-ko "Camilo Cienfuegos" Eskola-Hirian ekitaldiak. Antolatzaileak: Cubasolar eta Sodepaz.
- Caimito-Provincia Habanako landatzeetan lana, "José Martí" nazioarteko brigadan. Antolatzailea: I.C.A.P. (Instituto Cubano de Amistad con los Pueblos).

Europako taldean

Amaia Garcia, Euskadi-Cuba elkartearen kidea, Caimitora joan zen iragan urtean. "Mundu mailako brigada batean lan egin genuen, Europako taldean; guk alde egin eta gero Hegoamerika eta beste lekutako jendea egon zen". Jende gaztea da gehienbat hara joateko izena ematen duena, eta nekazari lanetarako ohiturarik ez du izan ohi; beraz, gogoia behar eta moldatzera!



Amaia Garcia.
Euskadi-Cuba elkartearen kidea

Lanerako gogoz doazen gazteen profila definitzean "gauza guztien gainetik oso solidarioak direla" esan du Amaiak. "Ipar europarrekin batera bizitzean oso bizi-



maila altu batera ohituak daudela konturatzen zara, baina oso jarrera ona dute".

Kubatarrei gainera beren herriaren errealitatea ezagutaraztea interesatzen zaienez, "goizez lau ordu egiten dugu lan, baina arratsaldean hitzaldiak prestatzen dituzte, bertako elkarteekin bilerak egin, eta azpiegiturak ikusten ditugu: museoak, osasun zerbitzuak, goi mailako kirolarien entrenamendu zentroak,...".

Amaia Garcia Kuba eta kubatarrekin maiteminduta etorri zen Caimitotik, "lehenengo batean iristen zaizun irudia pobreziarena da, Estatu Batuek bultzatutako blokeoak itota baititu, baina beraiekin hitz egitean oso aberatsak direla jabetzen zara".

Ikasitakoa zabaldu

Brigadak irautean duen denboran zehar ikasitakoa, "oso osasungintza sistema ona dutela adibidez", urtean zehar antolatzen diren hitzaldi, mahainguru eta eztabaidetan zabaltzen saiatzen dira Euskadi-Cubako kideak, hango errealitateari buruz esaten diren gezurrei aurre egin nahirik. Taldearen elkartasun helburu bakarra Kuba izatearen arrazoia horrela azaldu du: "Bertan gertatzen den blokeo bidegabe eta gogorra ez da beste inon ematen, eta dena aukeratu duten sistema sozialistagatik da. Horregatik, bere subiranotasuna eta sistema

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

JANTZI
ETA
OPARIAK
SARTU
Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



JOAN ETA ETORRIKO ELKARTASUNA ASKAPENAREN ESKUTIK

Udan urruneko herrietara joaten diren elkartasun brigadak ez direla turismo alternatiboa egiteko modu bat azpimarratu du Askapena taldeak. Aurten Venezuela, Mexiko, Brasil, eta Argentinara taldeak bidaliko ditu talde internazionalistak, "egia esan Txiapas-en urte osoan zehar ditugu brigadak eta uda ostean Palestinara ere bidaliko dugu jendea".



Kuba Askapenaren ohiko programazioaren zati da eta aurten ere ez da faltako, uztaila eta abuztuan 12 eta 15 laguneko bi brigada bidaliko baititu. 27 neska-mutil ekainean hasi ziren lan egiten eta azaroa arte elkartasuna lantzen jarraituko dute, "bilerak, jardunaldiak eta tailerrak egingo ditugu Kuban egoten garen hilabeteen jasotzen dugun elkartasunaren zati bat bueltatzeko".

Horixe baita Askapenaren filosofia: "hara joaten garenean elkartasun hartzaile gara, emaile baino gehiago". Horregatik brigaden helburua internazionalistak hezitzea da, eta horretarako hiru partetan zatitutako egitaraua beteko dute Kubara joaten direnek: lehenengo astean egitarau politikoa beteko dute, "bertako elkarteekin harremanetan"; hurrengo hamabost egunetan, "nekazaritza lana egingo dugu, bertako unibertsitate ikasleekin batera, "kubatar iraultzairen aldeko benetako lanarekin bat egiteko"; eta azken astean internazionalismo ikastaro bat egingo da, "Kubak denbora asko darama lan horretan, baliabide ekonomiko eskasekin 0,7 famatuak baino askoz emaitza hobeak lortuz".

mantentzen lagundu nahi dugu".

Aurtengo brigadak osatuta daude dagoeneko, baina datorren urterako informazioa nahi dutenek www.euskadicuba.org web-orrira jo dezakete, eta uztaileko dirua aurrezten ere has daitezke, elkartasun bidaia ez baitira merke ateratzen: batezbeste 900 euro (150.000.- pezeta). "Ikasle batentzat diru nahikotxo dela egia da, baina hor gastu guztiak sartzen direla kontuan hartu behar", zehaztu du Amaiak.



KOMITE  INTERNAZIONALISTAK

MEDICUBA EKIMENEAN, TALDE GUZTIAK BATERA

Uztailak 26, Komite Internazionalistak, Askapena eta Euskadi-Cuba

Talde bakoitzak egiten dituen proiektuez gain, Kubaren garapenaren aldeko indarrak batzeko biltzen dira taldeak. "MediCuba" izeneko proiektua adibidez talde guztien egitasmoa da; Askapena, Komite Internazionalistak*, Euskadi-Cuba eta Uztailak 26 (Kubaren aldeko taldea) taldeek erakundearen laguntza lortu dute horren beharrezkoak diren botiken lehen-gaiak bidaltzea bidaltzeko.

*Komite Internazionalistak taldearekin harremanetan jartzen saiatu gara, baina ez dugu lortu. Barka itzazue eragozpenak

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea: (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Unibertsitate eta Ikerketa sailak antolatuta, 'Xagux@rrak: Donatoren tertulia' izeneko kanpaina egin da aurtten. Kanpaina honen xedea ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna zabaltzea izan da. Horretarako komiki eta kontakizun lehiaketak egin dira DBHko lehen eta bigarren zikloetan, eta Gasteizko Koldo Mitxelena ikastetxeko bi ikaslek eskuratu dute lehen saria (180,3.- euro liburu eta komikietan). Lander Perez eta Garazi Agirre irabazleekin egon gara, beraien zaletasun eta gustuak ezagutzeko.

- ZEIN MOTATAKO KOMIKIA IRAKURRI NAHIKO ZENUKE? Umore asko duen edozein, tontakeriak dioen baten bat... gaur egun gutxi daude-eta.



IZEN-ABIZENAK: Garazi Agirre

JAIOLEGUNA:

1988ko otsailaren 1a; 14 urte

JAIOGUNA: Gasteiz

ZALETASUNAK: Irakurtzea eta idaztea

- **NOIZTIK IDAZTEN DUZU?** Oso txikitatik hasi nintzen, 7 urterekin. Txikitan marrazki bizidunetan ikusten nituen gauzen inguruan idazten nuen.

- **ETA ORAIN, ZERI BURUZ IDAZTEN DUZU?** Ipuinak egiten ditut. Gehienak fantasiaz-

koak dira, abenturazkoak.

- **ETA POESIA LANTZEN AL DUZU?** Baita ere, beti amodiozko gaien inguruko poesiak egiten ditut. Argazkiak ikusiz edo iraganez kontuak gogoraziz inspiratzen naiz.

- **ZER DUZU GOGOKOEN IRAKURTZEKO?** Abenturazko liburuak, gazteentzat idatzitakoak.

- **ETORKIZUNEAN IDAZLEA IZATEA NAHIKO AL ZENUKE?** Bai, hori da nire bizitzako ametsa. Denetariko liburuak idatziko nituzke gainera.

- **ZURE LIBURU GOGOKOENA?** Enid Blyton-en "El bosque".

- **ETA IDAZLERIK FAVORITOENA?** Gloria Fuertes eta Patxi Zubizarreta.

- **ZEIN DA IRAKURRI DUZUN AZKEN LIBURUA?** "Momo".

- **ETA IRAKURRI NAHI DUZUNA?** **HIRU DITUT:** "El bisonte mágico", "Sugeak txoriari begiratzeko dihonean" eta Harry Potter-en azkena.



ORDU BAT BERANDUAGO

Kaixo:

Ni Jon naiz. Munduan dagoen hamalau urteko mutilik despistatuena naizela esaten didate, eta ez da gutxirako. Pasa den astelehenean ordu aldaketa zegoen, eta beti bezala aldatzea ahaztu zitzaidan. Normalean baino ordu bat beranduago altxatu nintzen goiz hartan:

Altxatu bezain laster nagiak atera eta arropak jantzi nituen. Bakarrik nengoen etxean, eta gosaldutik bezain laster eskolara abiatu nintzen. Txangorako: motxila, dirua, bokata eta bi komiki prestatuta nituen, Beñati hitza eman nion komikiren bat eramango niola, baina, inondik inora ezin nuen jakin ezta imaginatu ere autobusa ordubete lehenago irtenda zegoela. Patiora ailegatu nintzen, baina ez zen umerik ageri bistan. Ohio burrunbatsu eta barre gozoak ez zeuden han egunero bezala, baina zergatik?

Bat-batean Aingeru agertu zen burdinezko ate kaxkarra bultzatuz. Aingeru nire gustoko neska izan da betidanik, baina bera ez daki! beno, behintzat pasa den astelehenerarte. Neskatalak motxila bat besterik ez zeraman, eta keinu biurri eta goibelez haxe galdetu zidan:

- Zuk ere arazo berdina ez da?
- Arazo, zer arazo? galdetu nion harriturik.
- Hara, Jon, ez al zara konturatu atzo gauean ordu bat aurreratu behar genituela erlojuak?, ni behintzat bidean konturatu naiz.
- Beraz, autobusa joan egin da?
- Autobusa tokitan dago dagoeneko.
- Beno, ba gu ere ondo pasatu beharko dugu, ez da?
- Noski, goazen buelta bat ematera.

Buelta bat emanda gero goseak geundela konturatu ginen, eta bokatak ez gastatzeko goxoki denda batera sartu ginen biok. Han txokolatinek eta goxokiak lapurtu genituen baina dendariak ikusi ninduen eta korrika batean atera ginen

Aingeru eta biok. Ordu batzuk pasa ondoren ume bat ikusi genuen bizikleta baten gainean eta goxoki baten truke aldatu nion:

- Igo zaitez Aingeru, nahi duzun lekura eramango zaitut eta.
- Kaira eramango al nauzu mesedez gidari jauna?
- Ziztu bizian, anderea.

Esan eta nere hankak ahal zuten bezain azkar joan ginen. Ailegatzeko ondartzera jeitsi ginen bizikleta eta guzti. Eguzkia odola baino gorriagoa zegoen, eta itxasoaren azpian izkutatzen zen bitartean Aingeruk zerbait esan zidan belarrira:

- Jon, nire ametsetako mutila zara.
- Ah, bai? ba nik zurekin eginten dut amets gauero.
- Neri ez sartu ziria!
- Ez, egia da, benetan- orduan begietara begiratu nion eta muxu eman genuen elkar. Oso muxu luzea izan zen.

Gaua gure gainean motel erori zen, hotzarekin batera. Nik nere lo-zakua atera eta Aingerurekin sartu nintzen. Bat-batean argi disdiratsu batek esnatu ninduen eta ondoren ohio izugarria:

- Hemen daude, aurkitu ditut!!! -ohiukatu zuen polizia batek- bizirik daude, biak batera.
- Oh, Jooooon maitea! zergatik eman diguzu susto hau?
- Aingeruuuu! Oso larrituta ibili gara zurekin-esan zuen bere amak.
- Beno ba denok etxera- gehitu zuen Aingeruren aitak, eta etxera joan ginen.
- Oraindik zigortuta nago, baita Aingeru ere, baina ordu bat beranduago ailegatzeko, orain bada- kit Aingeruk maite nauela.

Besterik gabe: Jon

GARAZI AGIRRE MAQUEDA

OHARRA: lanak egileek idatzi bezala argitaratu dira, zuzenketarik egin gabe



OLETATIK, KALITATEZKO JAKIAK ATXINETA BASERRIA: ELIKADURA ALTERNATIBOA



Oletako Atxineta baserrian nekazaritza eta abeltzaintza modu berezia praktikatzen dute. Euskal Herriko baserri gehienek ez bezala, Atxinetan ez dute ez behi ez ardirik, oreinak dituzte. Oletako baserri honetan ez dituzte tomateak eta letxuak landatzen, ahabiak nahiago dituztelako. Ekimen alternatibo honen buru Cristina Arangurenekin egon gara.

Edurne Begiristain

Argazkiak: Edorta Sanz

Oletan (Araba) da Atxineta baserria. Bertan lan egiten du Cristina Arangurennek, orein eta ahabien artean. Izan ere, Cristinak animalia eta fruitu horiek hautatu ditu baserriko produktu gisa. Orein okela eta ahabi marmelada ekoizten ditu baserrian, eta egun Gasteizko Abastos Azokako postu batean saltzen ditu. Ez da erraza izan, ordea, Cristinak egin behar izan duen bidea eta oraindik merkatuan tartea egiten saiatzen jarraitzen du. Duela hamar urte, aita hiltzean, baserriko buru geratu zen emakume hau. Behien ustiaketak ez zuen erabat betetzen, eta "gauza berriak, alternatibak" bilatu behar zituela pentsatu zuen. Emakume ausarta izaki, denbora gutxian abentura batean buru-belarri sartu zen.

Hasiera batean boilurrak landatzea otu zitzaion, baina adituek esan zioten lur mota horretara hobekien moldatzen zen fruitua ahabia zela. "Begiak itxi eta pausoa ematea erabaki nuen", diosku. Aitortzen du, hala ere, ahabien inguruan deus ez zuela ulertzen eta Frantziatik landareak ekarri ondotik sekula bizi izandako esperientziarik "zailena" bizi izan zuela. "Inork ez zuen honetan sinesten, eskulan asko behar nuen eta hasierako bizpahiru urtetan hanka sartu nuela pentsatu ere egin nuen". Haatik, ideiaz zeharo aldatu zuen opor batzuetan Kanadara bidaiatu zuenean. Bertan ahabiarekin gauza franko egin ahal zirela ikusi zuen, horrek "izugarri animatuz".

Ahabiak landatzea gutxi balitz, beste abentura batean ere sartu zen: haragirako oreinak izatea. Kasu



jarraitu behar dudala uste dut", adierazi du.

PROZESU GUZTIAREN KONTROLA

Cristinak ongi asko daki hiritarren kontsumo ohiturak aldatzea hagitz zaila dela, eta oreina eta ahabia jendearen elikaduran sartzeko ahaleginak ez dituela espero zitezkeen emaitzak eman. Gauzak hala, Atxinetako baserriko jabeak argi

honetan, Arkauteko nekazal-eskola-ko hitzaldi bat entzutean otu zitzaion oreinak izatea. "Neukanaren osagarri izan zitekeela pentsatu nuen", dio. Pentsatu eta egin. Eskoziatik 40 orein eme ekarri zituen eta bere haragia komertzializatzen hasi. Ordutik zortzi urte igaro dira eta esperientzia "neketsua" izan dela dio, gehienetan galduz eta maiz guztia uzteko gogoia izan duela onartuta. "Baina emakume baikorra naizenez, eta proiektu honetan sartu naizenez,

dauka zein den hemendik aitzin egin nahi duena: ekoizpenetik merkatu-ratze arteko prozesu guztia berak kontrolatzea. Alegia, Cristinak deritzo ekoizleak berak ezagutarazi eta komertzializatu behar duela bere produktua, are gehiago produktu berrien kasuan, "bereziak direnez, uste dut ekoizleak ezagutarazi behar dituela, bera delako jakiaren ezaugarriak hobekien dakizkiena, fedea duelako egiten duenarekiko eta hori da jendeari helarazi behar zaiona".



Helbide berria...

Landazuri, 7

INPRIMATEGIA

Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

Idea horren aldeko apustua egin du berak, eta horretan dabil Abastos Azokako 44 zenbakian, baserriko produktu berri hauek saltzen. Hasiera batean egunero irekitzen bazuen ere, orain astean birritan baino ez da postuan egoten, ostegun eta larunbatetan. Jendearen artean "dibulgazio" lana beste edozer baino gehiago egiten du bertan, oreinaren eta ahabia onurak eta zapore goxoa erakutsi nahian. Ildo horretan, beste urrats bat ematea ere bururatu zaio, hots, aurrez prestatutako oreina saltzea. Modu honetan erakutsi nahi du erraz askoa dela oreina prestatzea, beste edozein haragi bezala egin baitaiteke.

Cristinak positiboki begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta bide luzea egiteke duela jakin. Baina, eskarmentu handiko emakumea da eta izugarri sinesten du bere proiektuan. Zorionak eta animo, bada, Atxineta baserriari.



ONURA HANDIKO JAKIAK

OREINA, kalitate handiko okela: Haragi oso leuna da. Zaporez, oso goxoa. Koipe gutxikoa, eta beraz, kaloria eta kolesterol eskasekoa. Proteina eta burdin ugari ditu. Ohiko eran prestatzen da, baina modu exotikoan ere egin daiteke. Bere aholkua: haragiaren zapore guztia dastatzeko gutxi egostea da hoberena. Eta nahi izatekotan,

alboan laranja edo sagar saltsa bat jar dakiok. Oreinetik hanburgesak, txorizoa, saltxitxoa, saltxitxak, xerrak... eta abar egin daitezke.

AHABIA: Ezaugarri asko ditu bai landareak bai fruituak. Gehienbat erretinaren azala berritzeko da ona, ikusmen gaitasuna handitzen duelarik. Gernu-infekzioak hobetzeko, glukosa kontrolatzeko, hanturak eta infekzioak gutxitzeko... ere oso gomendagarria da. Ahabiarekin marmelada, zukuak, infusioak, saltsak, xaboia, tindagaiak eta beste hainbat gauza egin daitezke. Bestalde, ahabiak landatzeko lurra oso azidoa behar du izan eta hotz dezente behar du.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis



GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi




GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

“Bertsozaletzat dut neure bur

Zaragozan jaio zen Ruben Sanchez, orain dela 27 urte. Txikitan etorri zen familia Gasteiza. Enpresaritza diplomatura eta Euskal filologia egin ditu. Euskara euskaltegian ikasi zuen, eta duela hiru urte t'erdi bertso-larritza munduan sartu zen. Arabako Bertsolari Txapelketako bosgarren postua eskuratu du aurten. Pozik dago emandako mailarekin, eta iaz baino hobeto ibili dela deritzo. Hala ere, oraindik “ikasten ari dela” dio.



Edurne Begiristain

Argazkiak: Edorta Sanz


- 20 URTEREKin IKASI ZENUEN EUSKARA EUSKALTEGIAN. NOLATAN SARTU ZINEN BERTSOLARITZAN?

Duela hiru urte eta erdi hasi nintzen. Klean Gasteizko Bertso Eskolako kartel bat ikusi eta bertan sartzea erabaki

nuen. Soilik laupabost hilabete neramatzanean Asier Iriondok animatu ninduen Prudentzio Deunako txapelketan izena ematera.

- NOLAKOA IZAN ZEN LEHENENGO TAULARATZEA?

Erridikulua egin nuen. Azkena geratu nintzen.



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

“Burua, oraindik ikasten ari bainaiz”

AURTEN, BERRIZ, BOSGARRENA IZAN ZARA ARABAKO BERTSOLARITZA TXAPELKETAN. GUSTURA POSTUAREKIN?

Bai, gainera publikoaren saria eskuratu dut. Asier Otamendiri bi pertsonak baino ez zioten txapela eman, eta niri publiko guztiak (barre egiten du). Iaz baino hobeto ibili naiz, oso pozik eta gustura nago.

- NOLA DARAMAZU BERTSOLARI IZATEARENA? Gogorra eta zaila da, une oro kantatzea eskatzen didatelako. Nik, egia esan, bertsolari gisa bainoago, bertsozaletzat dut neure burua, oraindik ikasten ari naizelako.

- BERTSOLARITZA OSASUNEZ ONGI AL DABIL? Tokiz toki asko aldatzen da. Araban, esaterako, maila igo dela uste dut. Gipuzkoan,

“Bertsozale eta bertsolari multzo garrantzitsua sortzen ari da, ero eta arabarragoa gainera”

berriz, gazteek zailtasunak dituzte aurrera ateratzeko. Baina, oro har, osasun onean dagoela deritzot.

- ARABAN MAILA IGO DELA ESAN DUZU....

Bai, nahiz eta motel doan. Bertsozale eta bertsolari multzo garrantzitsua sortzen ari da, gero eta arabarragoa gainera. Horrek eragin du zaleek hemengo bertsolariak ezagutzen dituztela. Lehen ez zeuden horrenbeste plaza Araban, jendea animatzen ari dela ikusten da.

- ARABAZ ARI GARENEZ, ZER DERITZOUZU ARTIUM MUSEOARI?

Artiumen erabilitako dirua arte arloko beste gauza batzuk bultzatzeko erabil zitekeela uste dut. Nahi bada kultura bultzatu, behetik egin dezatela.

DI-DA

- ZEIN DA ZURE BIZIARIK HANDIENA? PARRANDA.
- ETA BERTUTEA? UMORE ONA, USTE DUT...
- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI? OSTIA ASKO EZ EMATEA.
- ZER ESKATZEN DU HERRIAK? HITZA.
- JENIORIK BA AL DAUKAZU? BAI, BAINA BEREHALA PASATZEN ZAIT.
- ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK? NORBAITEK NIRI BURUZ GEZURRAK ESATEAK.
- GEU ELKARTEA ETA ALDIZKARIAREN BERRIRIK BAI? BAI, HARPIDEDUNA NAIZ.
- EGUNKARI BAT? EUSKALDUNON EGUNKARIA.
- GUSTUKO JAKIRIK? PIKANTEA.
- GORPUTZEKO ATALIK POLITENA? IPURDIA.
- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO? TOKI TURISTIKO BATEAN EZ DEN-BESTE EDOZEIN LEKUTAN. KULTURA DESBERDINAK EZAGUTZEKO.
- LIBURU BAT? JOSEBA SARRIONAINDIAREN LAGUN IZOZTUA.
- IDAZLE BAT? MANUEL RIVAS, BERNARDO ATXAGA ETA SARRIONAINDIA BERA.
- GASTEIZEN BIZIKO EZ BAZINA, NON? ARABAKO HERRI TXIKI BATEAN.
- GASTEIZEK DUEN ONENA? AIZTOGILE KALEA.
- ETA TXARRENA? DONOSTIARREK HARTUTAKO GASTEIZ.
- NORI EGINGO ZENIOKE ELKARRIZKETA HAU? EVARISTORI.



Eskubaloia arriskuan

“Eskubaloia desagertze- dago, etorkizunik ez dago”

**Duela hemezortzi urte jaio zen neskak eskubalioan aritzeko aukera, orduan sortu baitzen Ehari-
aldea Eskubalo-
i Taldea. Ordu-
tik asko izan
dira emakumezko
arabar hauek Araba,
Euskadi eta Estatu
mailan lorturiko sari
garrantzitsuak. Egun,
berriz, euren kalitate
gaindiezina txapelke-
tetan erakutsi arren,
taldea osatzen duten
larogeita hamar
gazte hauen etorki-
zuna ilun agertzen
da. Arrazoia, besteak
beste, instituzioen
babes ekonomiko
falta, alegia.**



Txomin Gonzalez Ontoria, entrenatzailea

Josune Velez de Mendizabal
Argazkiak: Edorta Sanz

Hainbat herri eta hiritan egon den Txomin Gonzalez Ontoria betidanik praktikatu du kirola, hala nola, atletismoa, futbola, boleibola..., eta azkenengo 29 urtetan eskubaloia. Bera da, hain zuzen ere, Ehari-
aldea Kirol Taldearen aitzindarietako bat. “Ehundaka futbol talde ziren, ehundaka korrikalari ere bai, edonork egin zezakeen boleibola..., hortaz, eskubaloia-
ri ekitea erabaki nuen”.

Egun Mendebaldea Institutuko gorpuztuz heziketako irakasle den honek, beste batzuekin batera, bere garaian Juan Ramon Jimenez eskolan egiten zen eskubaloia-
ren praktika gal ez zedin klub bat osatzea erabaki zuten. “Nesken taldea eratu nahi genuen, azken finean mutilek edozein kiroletan nahiz talde-
tan aritzeko aukera zeukaten eta neskeentzat, ber-
riz, ezer gutxi zegoen”. Hortaz, bere irakasle egoera aprobetxatuz ikasleen artean eskubaloia-
rekiko grina piztu du Txominek, “jendea animatzen dut

eta horregatik batez ere apuntatzen dira, eta ez kirol honek izan dezakeen arrakastagatik...”

ETORKIZUN LATZA

Egun maila desberdinetan aritzen diren bost talde dira Ehari-
aldea osatzen dutenak: seniorrak, jubenilak, kadeteak eta infantiletan bi talde. Baina neska gazteak izan arren, 12-25 urte artekoak, Txominen aburuz lehenago edo beranduago taldea bertan behera geldituko da: “Eskubaloia-
k ez du etorkizun handirik gezurra badirudi ere..., bai neska bai mutilei dagokienez..., nahiz eta momentu honetan tontorrean gauden eta gezurra dirudien desagertze-
dago; jubenilak Euskadiko txapel-
dunak dira, kadeteak Euskadiko hirugarrenak gelditu dira eta infantilak Arabako txapel-
dunak ditugu. Kirolean ondo gabiltza, oso ondo, baina..., institutuan jendea tentatzen, animatzen ez bazaude nor apuntatuko da?...”.

Txominen ikuspuntu ezkorra erakunde-
en interes faltari lotuta dator, dirua izan baita orain arte



ARABAKO TXAPELDUNAK: GAZTETXOEN MERITUA

Ez zuten imajinatzeko horrela izan zitekeenik, aspergarria zelakoan eta orain gustura baino hobeto dabilta eskubaloian neskatala hauek. Txominen agintepean kategorien piramidean txikienetakoak diren hamahiru gaztetxo hauek euren kalitatea azkar azaldu dute; urtebete besterik ez direla hasi eta dagoeneko Arabako Txapeldunak ditugu.

Gauzak horrela, pozik doaz asteen bitan entrenatzera eta pasarteetan artean, behin mutilen kontrako partidaren 35 gol sartu zituztela aipatzen dute harro, Txominek euren jokatzeko modua miresten duen bitartean. "Arabako maila honetako hiru talde besterik ez daude, hau oso gutxi da gainontzeko probintziekin konparatuz... Bizkaia 60 inguru izango ditu, baita Gipuzkoak ere..., baina kopuruari begiratu beharrean kalitateari buruz ari garenean hauek onenak dira". Bestetik, "pitxitxia" zein ote galdetzen dugunean ez dira ados jartzen eta oihuak nahasten dira. Pasarteetan artean, ordea, adostasuna dago eta honako hau kontatzen digute: "Behin erasoan geundela eta bukatzeko bost minutu falta zirela taldekide bat nahastu, aurkariari pasa baloia, eta gola sartu ziguten".

Txominen iritziz, eskubaloian aritzeko beharrezko baldintza 'esne txarra' izatea da, "...baita gogoia ere, baina kontaktuko kirola den neurrian beti izango dira bultzadak eta lehia eta horretarako esnetxarra izan behar duzu". Ondorioz, gaztetxo hauek Arabako Txapeldunen titulua izan ezezik, 'esne txarra' ere izango ote?!

emakumezko eskubaloia talde honek izan duen traba handiena, "dirurik gabe ezin daiteke ezer egin", dio txominek, "Euskadiko Txapelketan aritzeko ere norberak bere fitxa ordaindu behar izan zuen eta jasotzen ditugun 12.020 eurok ez dute askotarako ematen...".

Hala ere, ezin ahaztu Eharialdeak lorturiko sari zenbaezinak: "asko izan dira, gehiegi... Euskadiko txapeldunak izan gara sei bider

edo, Espainiako seigarrenak eta zortzigarrenak izatera ere heldu gara, eta Arabako Txapeldunak betidanik". Oroitzapenen artean, berriz, bat du gogoratzen bereziki Txominek: "kirol honekin ez badut dirurik sekulan irabazi ere oso talde onak izan ditut, baita nirekin asko gogoratzen direnak ere...". Oroitzapen hauek luze jo dezaten etorkizun amaigabea opa diogu Arabako emakumezko eskubaloari.



GASTEIZ CUP 2002

NAZIOARTEKO VII.

FUTBOL KOPA

GASTEIZEN



Aurten ere, uztailaren 7a eta 13a bitartean, Gasteiz izango da futbol eta kulturaren topaleku. Izan ere, hau zazpigarren urtea dugu gure hirian Gasteiz Cup deritzon nazioarte mailako futbol txapelketa jokatzeko delako. Bere hastapenetatik gaur egunera munduko edozein txokotatik etorritako gazteentzat elkargune bilakatu da hau. Gauzak horrela, eta lehiaketaren izena gero eta oihartzun handiagoa lortzen ari den heinean zazpigarren edizio honetara 10 lurralde desberdinetako ehun bat talde gerturatuko dira, hala nola, Txipretik hamar bat taldek -maila guztietakoak- bidaiatuko dutela gureraino.

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE EUSKAL DENDAK

Futbola izar nagusia dugun arren, ez da hau sariketa honek duen helmuga bakarra, honetaz gain bilatzen duena partehartzaileen arteko elkartrukaketa kulturala ere baita. Hortaz, behin partidak bukatuta euren aisialdian Araba ezagutzeko parada izango dute.

Horretarako Antolakuntzak prestatutako ekintzekin batera (ilea eta aurpegia margotzeko tailerrak, puzgarriak, delegatuen arteko partidak, diskoteka, etab....), gure lurralde historikoa ezagutzeko bisitak antolatu ditu Gasteiz Cup-ek turismo sailarekin batera; aurreikusitako ekintzen artean Katedral Zaharra ikustea dago, besteak beste. Bestetik, eta Gasteiz Cup-en laguntzaile direnen gasteiztarrei esker gonbidatuak Mendizorrotzeko zelaira eta Gamarrako igerilekuetara joan ahal izango dira, baita urteigira ere.

Urtetik urtera berrikuntza eta hobekuntza lantzen dira, baina horretaz gainera edizio hasi berri honetan urtero etorri izan diren beteranoak ere badira. Horietatik bi aipagarri: Guarda izeneko portugesa, zeinen zazpigarren urtea baita Gasteiza datorrela, eta bestetik, aski ezagun bilakatu den Kuky Fornagueira, Tierra de Fuegoetik (Argentina) datorrena.

Ondorioz... Futbola atsegin duzula?, Euskal Herriko nahiz munduko leku ezberdinetan kirol honetan nola aritzen diren jakin nahi duzula?, adiskide berriak egin eta lagun desberdinak ezagutu nahi dituzula?... Gasteizko zelaian jolasten egongo dira uztailaren 7tik 13a bitartean; ostean Adurtza ikastetxean kokatutako egoitzan eurekin egoteko aukera izango duzu, kultura eta futbolaren topaleku Gasteiz Cup Txapelketari esker.



GASTEIZ CUPen EKINTZAK

Astelehena

- Jolasak, Gaztelu puzgarriak, Gol ta Gol Txapelketa: Sansomendin egun osoan
- Gaztelu puzgarriak: Adurtzan egun osoan
- Inaugurazio Ekitaldia: Mendizorrotzean, 20.30etan

Astearte

- Jolasak, Gaztelu puzgarriak: Sansomendin egun osoan
- Gaztelu puzgarriak: Adurtzan egun osoan
- Arabako Batzar Nagusien harrera, 13.00ean
- Mendizorrotzera bisita, goizez eta arratsaldean
- Ordezkarien Partida, Adurtzan 19.30etan
- Diskoteka, Santa Fen, 20.00etatik 24.00etara

Asteazkena

- Jolasak, Gaztelu puzgarriak: Sansomendin egun osoan
- Gaztelu puzgarriak: Adurtzan egun osoan
- Gasteizko Udaletxe Txit Gorenaren harrera, 13.30etan
- Mendizorrotzera bisita, goizez eta arratsaldean
- Gasteiz Cup Selekzioa & Alaveseko beteranoak-Partida, Adurtzan 20.15etan
- Diskoteka, Santa Fen, 20.00etatik 24.00etara

Osteguna

- Jolasak, Gaztelu puzgarriak: Sansomendin egun osoan
- Gaztelu puzgarriak: Adurtzan egun osoan
- Ordezkarien afaria (zehaztu gabe)
- Diskoteka, Santa Fen, 20.00etatik 24.00etara

Ostirala

- Jolasak, Gaztelu puzgarriak: Sansomendin egun osoan

- Gaztelu puzgarriak: Adurtzan egun osoan
- Diskoteka, Santa Fen, 20.00etatik 03.00etara

Larunbata

- Finalak, Sansomendin, 9.00etatik 14.00etara

TALDEAK

Atzerriarrak:

- Txile- Inst. Nac. Chile
- Txipre- Apollon Limassol F.C.
- Txipre- Digenis Morphou
- Txipre- Tsangarides Bross F.A.
- Italia- A.C. Besaňa
- Macedonia- Stip
- Macedonia- F.K. Makedonija-Skopje
- Portugal- Moitense
- Portugal- Guarda
- Rumania- C.S. Olctchim-R.M.-Vilcea
- Frantzia- Pariskoa (zalantzan)

Estatukoak:

- A Coruña- Silva S.D.
- A Coruña- Vioño F.C.
- Burgos- La Peña
- C.Valenciana- Elda
- Cantabria- E.M.F. Colindres
- Cataluña- P.B. Collblanc Sants
- Cataluña- Espanyol (Neskak)
- La Rioja- A.D. Loyola
- Palencia- C.F. Palencia
- Zaragoza- Olivar

Euskadikoak:

- Gipuzkoa- Joma Arkupe
- Gipuzkoa- Cantera San Josepe
- Gipuzkoa- U.D.A. Aretxabaleta
- Gipuzkoa- Ekosport
- Gipuzkoa- Solano Txiki
- Gipuzkoa- Donostiako
- Gipuzkoa- San Ignazio

Araba: gainontzeko taldeak, baina alea ixterako oraindik zeharo itxi gabe zegoen atal hau.

batasuna

**bakea
konponbidea**

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA EUSKAL HERRIARENTZAT

IBILI MUNDUAN 2002 Bidai Erakusketa

Zure bidaia prestatzeko gunea

Bidai Erakusketa uztailaren 31a arte zabalik egongo da Montehermoso jauregian

Leire Lopez de Aberasturi

Argazkiak: Edorta Sanz

Oporrak pasatzeko modu asko daude, ideiak ere askotan ez dira falta; informazioa lortzea, berriz, zailagoa izan daiteke bidaia-agentzien eskaintzak asebetetzen ez dutenentzat. Horientzako informazio iturri izan nahi du Montehermoso jauregian zabalik dagoen Bidai Erakusketak.

Bidai Erakusketaren laugarren edizioa da, urtean zehar Gazte Bulegoan dagoen material guztia bilduz, oporrak prestatzeko informazio bila dagoen jendea bi hilabetez hartzeko. Ekainaren 3an zabaldu zen "Ibili Munduan" izeneko programa eta uztailaren 31 arte zabalik egongo da, astelehenetik ostiralera; goizean 11etatik 2ak arte eta arratsaldeko 5etatik iluntzeko 9ak arte.

Informazio zerbitzuak ez du udan bakarrik funtzionatzen, baina ekainetik abuztua arte plaza berriko informazio bulegoa txiki geratzen da opor gosez dabilen jendea hartzeko. Hori dela eta, duela lau urte bidaietarako informazioa gune zabalago batera ateratzea erabaki zuen Udalak, gutxienez ekaina eta uztaila bitartean.

Gazteek jotzen dute gehienbat informazio bulegora, eta beraiek dira Udal zerbitzuaren helburu nagusia. Alicia Otxandegi, Gazte Bulegoaren arduradunak azaldu duenez, "gazteek,



eta ez horren gazteek ere, beren bidaiak libreki programatzeko behar duten informazioa biltzeko aukera izatea da". Urte osoan ikasten edo lanean eman ondoren, atsedean hartzeko hartu ohi ditu jende askok oporrak, baina bidaiatzea hori baino gehiago izan daitekeela azpimarratu du Otxandegik: "Kultura eta lagun berriak ezagutzeko balio dezake, baita lan egiten ikasteko eta norberaren formazioa zabaltzeko ere".

AISIALDIA, BEKAK, AUZOLANDEGIAK,...

Informazio bila dabilentzat bidaia-agentzia tradizionalek ematen dutena baino aukera gehiago ematen du

Erakusketak. Adibidez, atzerrian bekak lortzeko era, auzolandegietako informazioa, lan egiteko aukera ('au pair' moduan adibidez), baita udako jaialdien eta kirol abentura egiteko kontaktuen berri ere.

Informazioa internetetik, komunikabideetatik eta aldizkarietatik lortzen ditu Gazte Bulegoak, gero langileek datuak sailkatu eta erraz bilatzeko moduan ordenatzen dira. Informazioa herrialdeka eta gaika bilduta dago. Horrek esan nahi du norbaitek Almeriako karpeta hartzen badu bertan garraibide, alojamendu, kultura eta aisialdirako aktibitateei buruzko informazioa aurkituko

bar · restaurante · albéniz

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

EL
BAR
Kutxi

eguneko



dituela, zonaldekako azterketa eta deskribapenarekin batera.

Gaika sailkatutako karpeten atalean, aldiz, auzolandegietakoa, Done Jakue ibilbidearena, udako jaialdiena, parke naturalena edota 'au pair' aritzekoak aurki daitezke. Horien ondoan ohiko turismo gidak ere badaude.

Montehermoso Kulturunean egoteak aldeko beste puntu bat du, leku gehiago izateaz gain: Udalaren mediateka bertan dagoenez, aldizkari edo fitxetan lortutako datuak osatu nahi izanez gero, bertako ordenagailuen bidez interneten

informazio gehiago eskuratzeko aukera dagoelako.

MAILEGU SISTEMA MUGATUA

Bidaien Erakusketa kokatu den gelaren mahai luzeetan datu interesgarrienak idazteko folio eta arkatzak daude, eta horretaz gain bulegoan 10-15 bat fotokopia doan egiteko aukera ematen du Udalak. Gidak eta aldizkariak ezin dira maileguan hartu, batzuei utzi eta erakusketan mantentzeko adina alerik ez dagoelako, baina fotokopia gehiago egin nahi izanez gero, kalera atera eta

ordu batzuen bueltan itzultzea posible da. Mailegu sistema mugatu bezala definitu daiteke, beraz, Gazte Bulegoan dagoena.

Iaz 1.737 lagunek jo zuten Udalaren Gazte Sailaren ekimenez sortutako bulegora, bertan dauden 1.352 liburu eta 17 aldizkarietan informazioa bilatzeko asmoz. Iaz bezala aurten ere zozketa bereziak prestatu dituzte antolatzaileek laguntzaileekin batera (GEU aldizkaria horietako bat da), eta kontaktuak egiteko saila ere martxan da dagoeneko. Iaz, Kubara joateko taldea sortu zen kontaktuak egiteko txokoan; hortaz, oporretara norekin joan ez duela dabilenak, badaki nora jo.

Oraindik goiz da jendea aurten aukeratzen ari den helmugak zeintzuk diren esateko, baina badirudi modak bidaietan ere agintzen duela. Iaz, jendeak Espainia, Estatu Batuak eta Eskandinaviara joateko informazioa eskatzen zuela gogoratu du Alicia Otxandategik, "baina batez ere Senegal egon zen modan". Aurten, oster, Asia, Malta eta Azores ei dira modako herrialdeak.

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

• **GIZA KUTSUEN UNEAK.**

Erakusketa

Arte eta Lanbide Eskolako argazkilaritza tailerra eta ikus-entzunezkoen II. Tailerra. Montehermoso Kulturunean Ekainak 21-Uztailak 21

"... begiak itxi eta une horretan munduari gertatzen ari zaion guztia datorkit burura, zenbat pertsona hiltzen edota jaiotzen ari diren, zenbatek elkar maite duten edo torturatuak izaten ari diren, kolpatuak, erahilak, bortxatuak une honetan bertan, zenbat musu eta fereka dauden oraintxe, zenbatek tiro egiten duten besteen buruetara, zenbat garrasi, erregu eta barre..."

... eta gizon-emakume sentitzen naiz."

• **"AMARAMARICA" ERAKUSKETA**

(Zuloan -Hedegile kalea, 21 eta 'Café Plaza'ko erakuslehoian): Amarica aretoaren alde. Orotara artista arabarren 30 artelan: Alutiz, Ivan Arroniz, Itxaro Delgado, Diaz de Corcuera, Brenan Duarte, Joaquin Lara, Larrinbe, Imanol Marroddan, Martinez Vela, Pablo Milicua, Iñaki Uribe, Fito Rodriguez, Ibon Saez de Olazagoitia, besteak beste. Plazan, berriz, komikiak formato handian: Mauro Entrialgo eta Santiago Orue ('El Jueves'), eta Piñata eta Abarrots (TMEO). Uztailaren 9ra bitartera.

• **PEDRO DE ATARRABIA XIV. LITERATUR SARIKETA**

Kontakizun laburrak

Epea: irailaren 27a

Antolatzailea: Atarrabiako Udaleko

Kultura Zerbitzua

Tel.: 948332659

ccvillava@cin.es

• **II. UMORE GRAFIKOKO NAZIOARTEKO**

LEHIAKETA: "TEKNOLOGIA BERRIAK"

Partehartzaileek teknologia berrien gaineko (internet, biologia, espazioa, telekomunikazioak, medizina, etab.) umore grafikozko marrazkiak aurkeztu beharko dituzte

Epea: Azaroaren 4a baino lehen

Informazioa: Barakaldoko Udala

• **JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA**

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika

Proiektua, azterlana eta memoria

euskaraz burutuko dira

Epea: irailaren 10etik 27ra

Informazioa: Irungo Udala-Euskara

Zerbitzua. 943649250. euskara@irun.org.

www.irun.org

• **JUAN SAN MARTIN BEKA 2002**

Antolatzailea: Eibarko Udala, Udako



Euskal Unibertsitatearen

laguntzaz

Ikerketa esparruak:

2002an Artearen Historia

eta Historia

Epea: irailaren 9tik

urriaren 10era

Informazioa: Eibarko

Udala

• **"INTXAURREN OSKOLA:**

IPUINAK IRAKURRI, ITZULI,

IDATZI" IKASTAROA

Udako Euskal

Unibertsitatea. Literatura

Saila. Itzulpengintza Saila

Iruñea. Uztailaren 22tik

26ra

Arduradunak: Gidor

Bilbao Telletxea-Iban

Zaldua Gonzalez

Informazioa: 945144501

• **"ARABAKO GORRAK"**

ELKARTEA: KEINU-

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO IKASTAROA.

Berau ezagutzeko interesa duen edonori

zuzendua: irakasleak, logopedak,

senideak, ikasleak...

Urritik maiatzera (4 ordu astean). Maila

desberdinak. Plaza mugatuak

Informazioa: 945286948

• **SUMENDI, OSASUNAREN AUTOGESTIOAREN**

ALDEKO ELKARTEA

Udako ikastaroa:



Juan San Martín
beka 2002



axular Liburudenda
Arka, 11
01005 Vitoria-Gasteiz

LIBURU ETXEA
Alameda de Urquijo, 9
48008 Bilbao
Colón de Larreategui, 41
48009 Bilbao

LIBURU ETXEA
CASA DEL LIBRO
axular Liburudenda

IRUSTA
TABERNA

poteo eta
pintxoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

EAJ PNV

Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!

Uztaila, abuztua eta iraila.
Lekua hartzeko eta informazio
gehiagorako:
944 100 644 - 946 153 175
sumendi@euskalnet.net
www.euskalnet.net/sumendi

• **JAKINET. EUSKO IKASGAJETAN**

IKASTAROA INTERNET BIDEZ. 2002-2003

Antolatzaileak: Eusko Ikaskuntzaren
Asmoz Fundazioa eta UNED
(UNEDen berezko titulua)

Ikastaroaren iraupena: 2002ko urritik
2003ko ekainera

Matrikula epea:

- Aurrematrikula: irailak 30

- Matrikulazioa: urriak 1-15

Informazioa: 945231552 /

eusko@infonegocio.com /

www.asmoz.org/JAKINET

Beste ikastaroak: www.asmoz.org

• **GARAPENERAKO LANKIDETZA**

ESTRATEGIAK. IKASTAROA

Uztailak 3-18

Antolatzailea: Setem Hego Haizea

(Federico Baraibar, 15-01003-Gasteiz)

Euskararen Elkartea



IkAsTuRtE BeRRiRaKo EuSkArAzKo KuLtUr EsKaInTza

udan ere euskara rekin joan ke

Mintza-Praktika Uda 2002

Practicas euskera para mayores a partir de 5º nivel

☐ Uztaila

☐ Iraila

ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

20:00etatik 21:30etara

Matrikula: 20 euro.

INFORMAZIO GEHIAGO:

EUSKHARAN ELKARTEAN

Benito Pz. Galdos enparantzan (AMAIA)
ARANBIZKARRAN. TEL.: 945 28 82 75

HARRERA ORDUAK:

19:00etatik 21:00etara

Ekainean: Astearte eta Ostegunetan
en Junio: los martes y jueves

IKASTURTE BERRIRAKO MATRIKULA 2002/2003

Ohiko Tailerrak:

Txalaparta, Tzikitixa,
Bertzolaritza, Panderoa,
Perkusioa.

Tailer berriak:


Margoa eta marrazketa
Keramika, Masaia,
Esperantoa.

MINTZA-PRAKTIKA

Epea:

Matrikula egiteko epea irailean
zabalduko da.

kurtso hasiera: URRIAN



GORETTI ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUJA (ARABA) • 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Egueditan, asteleneetik ostalera

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ



ITURRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK IGANDERA
IREKITA.

ASTEAN ZEHAZ
ENKARGUEN BIDEZ.

ASTEBURUETAN:

HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK



ZORIONAKI!
HEMEN DUZUE
UDAKO...

...GLOBALIZAZIOA!!





Europako herrialdea Britaina Handiko koroaren menpe dagoena.

Kontrastez betetako herrialdea. Bertan, mendiak, gaztelu erromantikoak eta meategiak aurki ditzakegu.

Azalera: 20.764 km

Biztanleak: 2900000

Hiriburua: Cardiff(265000 biztanle)

Hizkuntzak: galesera edo kymruera (500000 hiztun) eta ingelesera

Erligioak: protestanteak, katolikoak, anglikanoak

Txanpona: libra

Ordua: GMT

Bertara joateko ez da pasaportetik behar.

Lekurik interesgarrienak:

Cardiff hiriburua. Bertan gaztelua, portua eta arkitektura nabarmendu ditzakegu.

Snowdoniako parke nazionala. 1352 m2. Parke honetan Snowdon mendia (1068m) dago. Parke honetan zailtasun maila desberdinetakoa ibilbideak egin ditzakegu. Parkean, ibaiak, lakuak, ibarrak eta abar daude.

Beste leku interesgarri batzuk: Llanberiseko ibarra, Porthmadog, Llanfairpwllgwyngyllgogerychwynndrobwyllyllantysiliogogoch. Hau da munduko izenik luzeena duen hiria, Anglesey irla

Klima: klima hezea du, barnealdean hotz handiagoa egiten du kostaldean baino.

Jarduerak. senderismoa (Snowdoniako parkean zehar), surf (hegomendebaldeko kostaldean), jaitsierak kanoetan (Snowdoniako parkean eta Llangollen), ibilbideak zalditxoetan.

EUSKARA JALGI HADI MUNDURA

Ettxepareren hitzak abiapuntutzat hartuta Gasteizko BAGARE EUSKAL TOKIAK euskara eta euskal kultura mundura zabaltu nahi ditu.

Aurreko urtean Txekia eta Polonia ezagutzeko parada eduki genuen. Oraingo honetan Galesera joango gara:

Iaz bezala bidaiaren helburuak honako hauek dira:

- euskaraz egitea.
- euskaldunok elkar ezagutzea.
- euskara eta euskal kultura zabaltzea.
- beste herri batzuetako hizkuntza eta kultura ezagutzea. Horrela aurrean bertoko euskaldunekin egon eta Galeseko jendea ezagutuko dugu.

Beraz, bidaiak hauek egiteko ezinbesteko baldintza euskalduna izatea da.

Txangoak abuztuan burutuko ditugu, Bidaia autobusez egingo dugu, kanpinetan lo egingo dugu. Abuztuan euskaraz eginez ondo pasatu nahi baduzu etor zaitez gurekin.

IBILBIDEA

- 1. eguna** Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteiz hirietatik irteera. Gaua bidean.
- 2. eguna** LONDRES Bidaian aurrera eginez, Calaisetik Doverrerako itsasuntzia hartu eta arratsaldeko lehenengo orduetan Londresera helduko gara. Denbora librea bidaiaren nekea astintzeko eta Londreseko hiria ezagutzen hasteko.
- 3. eta 4. egunak** LONDRES. Egun librea Londresen. Bere erdiguneko monumentuen alde bisita dezakegu (Buckingham Palace, Westminster Katedrala, Parlamentua, Big Ben,...) edo bere kontaezinezko museoak ikusi.
- 5. eguna** LONDRES - BRECON. Goizean

goiz irten Breconera eguerdialdean heltzeko. Brecon erdi aroko hiria da, normandarrek sortua eta Brecon Beacons Parke Nazionalari izena ematen diona.

6. eguna BRECON – CARDIFF – BRECON. Egun honetan Brecon ezagutzen jarrai dezakegu edo bere inguruak edo Cardiff, Galeseko hiriburua, eta bere gaztelua, Galeseko Museo Nazionala eta Llandaf Katedrala.

7. eguna BRECON – TENBY. Goizean goiz Tenbyrantz irten, Pembrokeshireko kostaldeko Parke Nazionalaren mugan dagoen hiria. Tenby harresiez inguratutako erdi aroko hiria da eta bertatik kostaldean zehar 260 kmko baino gehiagoko ibilbideak egin daitezke.

8. eguna TENBY – SWANSEA - TENBY. Denbora librea Tenby ezagutzen jarraitzeko, hurbil dagoen Caldey izeneko irlara joateko edo Galeseko bigarren hiria den Swansera egun osoko ibilbideak egiteko.

9. eguna TENBY – PORTHMADOG. Hegoaldetik iparraldera Gales zeharkatuz, kostaldean eta Snowdonia Parke Nazionalaren mugan dagoen Porthmadog izeneko hirira helduko gara.

10. eguna PORTHMADOG - ANGLESEY IRLA – PORTHMADOG. Egun osoko txangoa, 304 mko Menay zubia gurutzatuz, 1826.ean eraikia eta 1970.ean berreraikia, bere sasoiaren munduko zubi zintzilikakorik handiena izan zena, eta ondoko hiriak bisitatzu: Beaumaris, Llanfairpwllgwyngyllgogerychwyn

ndrobwyllyllantysiliogogoch (munduko izenik luzeena duen hiria eta nolabaiteko itzulpena eginez "Andramarien kapera troka batean kokatua, hurritz zuriaren ondoan, ur-zurrumbilo azkarretik hurbil, San Tysilio elizako haitzulo gorritik ez urrun") eta Holyhead.

11. eguna PORTHMADOG – LLANBERIS – PORTHMADOG. Egun librea Porthmadog bisitatzeko, ur-jauzien eta lakuen artean 21 kmko ibilbide polita zeharkatzen duen mehatze-trena hartzeko edo autobusez Llanberisera joan eta bertan 2:30tan 1.085 mko Snowdon gailurrera doan lurren-trena hartzeko.

12. eguna PORTHMADOG – CHESTER – LIVERPOOL – CHESTER. Goizean goiz irten ahalik eta azkarren Chesterrera heltzeko. Kokatu bezain laster, Liverpoolerantz abiatuko gara. Beatlesen hiria bisitatzeko denbora librea. Iluntzean Chesterrera itzuliko gara.

13. eguna CHESTER – CAMBRIDGE. Galeseko mugan dagoen hiria ezagutzeko denbora librea, arratsaldean eta Ingalaterran sartuta Cambridgerako irteera. Iluntzean helduko gara.

14. eguna CAMBRIDGE. Goizean denbora librea unibertsitatez betetako hiria ezagutzeko edo txalupa alokatu eta ibaian zehar paseatzeko. Arrats behean La Mancha Kanalerantz irten eta gurutzatu ondoren, itzulera jarraitu.



15. eguna Bidaia amaitzen jarraitu eta irteera-lekuetara arratsaldean helduko gara.

Informazioa gehiago: BAGARE EUSKAL TOKIA
Aitzogile (Kutxi) 62 - 01001 GASTEIZ • Tfnoa.: 945261956

Irteera eguna: Abuztuak 11

Prezioa: 225.- euro. Prezio honi kanpinetakoa gehitu behar zaio
Apuntatu uztailaren 20a baino lehen

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA LIBURUAK SALGAI!!!



- 2 liburu dira: bat EUSKARAZ, bestea GAZTELERAZ
- 256 orrialde
- Salneurria: 19, 8 € (liburudendan)
PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta
BAZKIDEENTZAT (bulegora etorrita): 17, 5 €
- Honako liburudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen).
Gasteiztik kanpo: liburudenda nagusienetan

Arabako euskal jatorriko toponimiak antzinako biztanleen iragan euskalduna erakusten digu. Baina, errealitate hau baieztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arbasoek menderik mende gehien erabili ohi zuten hizkuntzaren aztarnarik utzi al dute? Erreferentzia zein idazkirik utzi al digute? Zer eman du Arabak euskararen historian? Zer euskara mota mintzo zen?...

...Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan aberats eta bisula oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez -Aktak, kontu-liburuak, noblezia espedienteak, testamentuak, ezkontzak, inkisizioaren epaiketak, arabarren euskarazko idatziak,...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldetan ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.



EZAGUTU ZURE HISTORIA!! IRAGANAREN EZAGUTZAK ETORKIZUNAREN INDARTZEA DAKARRELAKO!

ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
ERAKUSKETA IBILTARIAk udan ere aurrera darrai:

• LANTARON:
Uztailak 13-25

• EKORA:
Uztailak 27-Abuztuak 12

• LEZA:
Abuztuak 14-31

• LANGRAIZ OKA:
Irailak 14-30